



IRISTEAR DA 'TOLOSANDBLUES' JAIALDIA

Red House+Lou Marini eta The Romanticos taldeen kontzertuarekin hasiko dira zabaltzen blues doinuak herrian >3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-06-23**

VIII. URTEA 2.034. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Herriko 16 eragilek 'Elkarteen etxean' izango dute egoitza berria

TOLOSA Emeterio Arrese eraikineko lehen solairuan bilduko dira, Tolosako Ekinbide Etxea zegoen tokian

2.500 BAZKIDE 16 elkarteetako kideez gain, beste talde batzuek 6 bulego eta 2 bilera gela erabili ahalko dituzte z



Elkarteetako kideekin batera egin zuten herenegun gela berrien aurkezpena. I. TERRADILLOS



Mendizale eta txirrindulari ugari animatu zen martxan parte hartzera. HITZA

53 mendizale eta 16 txirrindulari Mendi eta Bizikleta Martxan

BEDAIO Lehen txirrindulariak 2 ordu eta 10 minutu behar izan zituen ibilaldia egiteko s

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteagunetan 08:30-20:30 / Lanurabategian: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidalai izen-emata orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

| | |
|-----------------------|----------------------|
| • Izen-abizenak: | • N A: |
| • Lanbidea: | • Jaioteguna: |
| • Helbidea: | • Herria: |
| • P.K.: | • Tel.: |
| • Posta elektronikoa: | |
| • Kontu zenbakia: | <input type="text"/> |

STATU TABERNA



Herritar eta kanpokoak
jaiak goxo eta alai
bizi behar ditteu!
Gora Abaltzisketa!

943 651 876 • 690 349 009
ABALTZISKETA

'Elkarteen etxea' erabiltzen hasteko prest

Gizartea » Herriko 16 elkarteren egoitza izango da Emeterio Arrese eraikina; sei bulego eta bi bilera-gela ditu.

INIGO TERRADILLOS

Atzo ireki zituen atek Emeterio Arrese eraberrituak. *Elkarteen etxe* bezala bataiatu dutena aurrerantzean herriko 16 elkarteren egoitza izango da. Elkarte hauek guztiek ezaugarri bat dute komunean, hau da, guztiekizaera soziala dutela.

Emeterio Arrese eraikineko lehen solairuan Tolosako Ekinbide Etxeko kideak izan dira orain arte, baina hauek Topic-era igaro ostean, hutsik geratu zen gune hori. Udalak, orduan, herriko elkarteak sakabanatuta zeudela eta batzuk egoitzarik ez zutela ikusita, gune hori elkarteentzako lokalak egokitzeko erabiltzea erabaki zuen. «eraikinari izaera soziala emanez eta horrela, elkarten lana indartuz». Hala, esaterako, Minbiziaren aurkako elkarteak eta Nagusilanekez zuten lokalik Tolosan, baina aurrerantzean eraikin horretan egin ahalko dituzte euren lanak.

16 elkarte horien artean 2.500 bazkide baino gehiago batzen dituzte. Udaletik azaldu dutenez, «eurekin izandako bileretan ikusitako beharren arabera» adostu



Jokin Bildarratz alkateak elkarteetan egiten duten lana nabarmendu zuen.I.T.

dute gunearen erabilera. 73.800 euroko kostua izan duten lanen ostean, 6 bulego eta 2 bilera-gela egokitu dituzte. Horiek adosturiko egun eta ordu jakinetan erabiliko dituzte elkarteak. Habaler, herriko beste elkarteek ere erabili ahalko dituzte gelak bilerak egiteko.

Elkarteetako kideak gustura

Elkarteetako kideak ez zuten hutsik egin nahi izan, eta jende andana izan zen atzoko inaugurazio ekitaldian. Gustura nabari zitzaizkien guztiak berriekin. Egoitza nola geratu den ikusi ostean, mokadutxoak hartzeko aukera ere izan zuten.



Minbiziaren aurkako elkarteak bere lekua izango du aurrerantzean.I.T.

» DATUAK

■ **16.** Herriko 16 elkarte dute lekua Emeterio Arrese eraikinean.

Elkarteak

- **Harizpe.** Jubilatutako pentsiodunen elkarte.
- **Laringektomizatuen elkarte.** Tolosaldea eta Goierriko elkarte.
- **AECC.** Minbiziaren Aurkako Elkarte.
- **Tolosa & Co.** Merkatarien elkarte.
- **Aslemegi.** Gipuzkoako bizkarrezur-muineko lesionatuen elkarte.
- **Aspaldi.** Diabetikoen elkarte.
- **Appetol.** Aurrejubilatutako emakume alargunen elkarte.
- **Cuba y Palante.** Kubatar eta lagunen elkarte.
- **Bizi Bide.** Fibromialgia eta astenia kronikoa dutenen elkarte.
- **Bilgune Feminista.** Euskal Herriko emakume feministen elkarte.
- **Beti Ilkaste.** Esperientziaren Eskolako emakume ikasle ohien elkarte.
- **Gaunditzen.** Pertsona gorren elkarte.
- **Nagusilan.** Pertsona helduekin lan egiteko boluntarioen elkarte.
- **Tolosako arrantzaleak.** Tolosako arrantzaleen elkarte.
- **Emakumezkoen aldeko gizezkoen taldea.** Berdintasunerako lan egiten duen elkarte.
- **Jatorkin.** Etorrinen aldeko elkarte.

Giro polita San Joan xake txapelketan

Xakea » 14 taldek hartu zuten parte; taldeka Errenteriako Fomentok irabazi zuen, eta banaka bertako Txus Agirretxek.

ERREDAKZIOA

Iragan igandean xake azkarreko XXXVII. San Joan Saria jokatu zuten Tolosako Kultur Etxean. Guz-tira Euskal Herriko 14 taldek parte hartu zuten, eta taldeka Errente-



Jende ugari bildu zen Kultur Etxean xakean jokatzeko.HITZA

riako Fomentok irabazi zuen, eta banaka talde bereko Txus Agirretxek.

Gipuzkoako taldeak izan ziren

nagusi txapelketan: Errenteriako Fomentok irabazi zuen, bigarren Urnieta izan zen, eta hirugarren Villabona geratu zen. Ondoren,

laugarren postuan Abadiño sailkatu zen, eta bosgarren Portugalete. Eskualdeko beste taldea, hau da, Tolosa-Ibarra, seigarren postuarekin konformatu zen.

Taldeka ezezik, banaka ere lehia polita ikusi zen. Fomento taldeko Txus Agirretxe errenteriarrak eraman zuen beste urte batez jokalarari hoberenaren saria. Atzetik izan zituen denbora guztian Villabonako taldearekin jokatzeko duen Jose Luis Guijarro kordobatarra eta Abadiño Ibon Martin; baina Agirretxek elkarren arteko partidak irabazi zituen eta saria «meretzimendu osoz» eskuratu zuen. Izan ere, partida bakarra galdu zuen txapelketa guztian zehar, Tolosako Txapelketako azken irabazlea izan den Josu Mujika ibarraren aurkakoa, hain zuzen.

Laburrak

Bertso saioa, gaur Zerkasian, 19:30ean

KULTURA » Tolosako Udalak antolatuta, bertso saioa izango da gaur, 19:30etik aurrera, Zerkasian. Aitor Mendiluze, Bixente Gorostidi, Amaia Agirre, Mikel Artola, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal ariko dira bertsoan.

Peñasal Fundazioak hiru ikastaro eskainiko ditu

HEZKUNTZA » Peñasal Fundazioak Tolosaldea Garatzenekin batera, Prestakuntza Profesionalerako Hastapeneko Programaren barruan hiru ikastaro eskainiko ditu datorren ikasturtean: soldadura ikastaroa, arotzeria metalikoaren ikastaroa eta jatetxe eta taberretarako sukaldari eta zerbitzari ikastaroa. Kurtso bakoitzak bi urtetan banaturiko 2.000 orduko iraupena du, eta horietatik 400 eskualdeko enpresetan eginiko praktikak izango dira. Ikastaro hauetan 16 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu ahalko dute parte. Informazio gehiagorako 943 67 61 61 edota 943 67 51 95 zenbakietara hots egin daitezke.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

JABETZA ERREGIMENEAN ADJUDIKATZEKO VOITH-GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA TASATUETI LOTUTA EZ DAUDEN GARAJE PLAZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEAN ARGITARATZEA

● Behin-behineko zerrenden argitaratzea: 2010eko ekainaren 23tik aurrera.

● Leku: Tolosako Udaletxeko iragarki taulan eta www.tolosakoudala.net web orrian.

● Erreklamazioak egiteko azkeneko eguna: 2010eko uztailaren 5a, 13:00-ak arte.

Tolosan, 2010eko ekainaren 21ean

ALKATEA

Jokin Bildarratz Sorron

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Izarrak ez dira faltako aurtengo 'Tolosandblues' jaialdian

Musika » Uztailaren 2an eta 3an, blues doinuak entzuteko aukera egongo da Tolosan. Sarrera doan izango da.

ASIER IMAZ

Biegun, bostkontzertu, han eta hengo izar diztiratsua, lau eskenatoki eta bluesa; bluesa gelditu gabe. Hau nahikoa ez eta kontzertuak doan izango dira.

Iñigo Martín tolosarra gelditu gabe dabil antolatzaile lanetan. Berarekin hitz egitean, gauza bat gelditzen da argi: bluesa gogotik maitatzen duela. Maitasun horrek ilusioa



Raimundo Amadorrek eta Nāco Goñik elkarrekin jo zuten ia. HITZA

pizten du ingurukoengan. Mundu berri edo zahar hau ezagutzeko gogoia, alegia. Uztailaren 2a eta 3a egun handia izan daiteke edonorentzat.

Kontzertuak

Jaialdia Red Housek zabalduko du, Lou Mariniren laguntzarekin. Marini The Blues Brother talde mitikoaren sortzaileetako bat da. Ondoren, The Romanticos taldearen txanda izango da. *Piris* tolosarra Fronton kafetegian ikusteko aukera egongo da, beraz, bertako taldeei eskainitako txokoan.

Uztailaren 3an, Sherman Robertson azpimarratu behar da. Martinen esanetan, «bonbazo bat

» EGITARUA

Uztailak 2, ostirala

- **Red House+Lou Marini.** 22:30ean, Euskal Herria plazan.
- **The Romanticos.** 00:00etan, Fronton kafetegian.

Uztailak 3, larunbata

- **Mc Jearas Band.** 19:30ean Amarotz auzoan.
- **Sherman Robertson.** 22:30ean, Plaza Berrian.
- **Barcelona Blues Connection.** 00:00etan, Fronton kafetegian.

izango da». Bere zuzenekoek izugarriko indarra omen dute, «publikoasegidan sartzen du poltsikoa, izugarria izango da». Azken emanaldia Barcelona Blues Connection-ek eskainiko du. Jaialdiko «ezustekoa» izango omen dira. Hauen artean, Karlos Aranzegibaterijole tolosarra egongo da.

«Aho-soinua liluragarria da, hain txikia izanik ematen dituen erregistro eta aukerengatik»

IÑIGO MARTIN » Antolatzaile taldeko kidea

Antolakuntza » Artisten artean kontaktuak izateaz gain, Iñigo Martinek komunikazio lanak ere egiten ditu.

ASIER IMAZ

Iñigo Martín tolosarra ez da *Tolosandblues* musika jaialdiko zuzendaria, hori argi eta garbi utzi nahi izan du. Jaialdia talde lanean antolatzen dute eta berak «proposamenak» bakarrik egiten ditu. Pisuzko iritzia duela ordea, ukalezina da. Euskadi Irratian kolaboratzaile lanetan ibilia da, Kostaldeko Trena musika saioan. Bluesaren arra lehenagokoa du, duela 18 urte sartu baitzitzaion barne-barneraino.

Zer gertatu zen duela 18 urte?

Behar bada Luther Alisson-en kontzertua ikusi nuenean gertatu zen. 1992. urtean bere zuzeneko bat ikusteko aukera izan nuen eta erabat murgildurik gelditu nintzen; hortik aurrera gaurdaino.

Bluesa eta jazz. Jazz eta bluesa. Nor da nor?

Jazzean egia esan ez nago oso jantzia. Bluesa behar bada herrikoia goa da, zaharragoa ere bai, nahiz eta jendeak alderantzizkoa pentsatu. XIX. mendean eta XX.aren hasieran, Ipar Ameriketako langileek protesta moduan abesten zizuten kantak ditu oinarrian bluesak.

Bluesetik zerk liluritzen zaitu?

Harmonika instrumentuak erabat liluritzen nau; hain txikia izanik, ematen dituen erregistro eta aukerengatik. Hain txiki ikusten duzu instrumentua... baina hori aukera eskaintza duena! Zoragarria da.



ESTIEZEZA

'Tolosandblues'-eko aurtengo egitaraua ikusten duzenean, zer esaten diozu zure buruari?

Oso egitarau orekatua dela; goi mailakoa ere bai, izar dezenterekin. Guztien gainetik Sherman Robertson aipatuko nuke alde bate-tik, bestetik Red House + Lou Marini. Azken hau 70. hamarkada bukaeran Blues Brother taldea sortu zuenetako bat da. Horrek jaialdia erakargarriago egiten du. Izarrak bi emanaldi hauek baldin badira ere, Barcelona Blues Connection ere azpimarratu nahiko nuke.

Espresuki Tolosarako osatu al da talde hau?

Bai. Formazio bezala ez dute inoiz jo, baina benetako ezustekoa izango dela iruditzen zait. Joan Pau Cumellasek eta Victor Puertasek harmonika elkarrekin joko dute; une honetan Europa mailan onenetakoak dira biak ala biak. Hauekin batera, Bernard Font pianoan, Miguel Talavera gitarrarekin eta Karlos Aranzegi tolosarra bate-

Jaialdira joaten naiz. Red House-kin harremana lantzeko balio izan zidan. Lehendik ezagutzen banituen ere, kontzertua ikusi ondoren Tolosarako oso aproposak zirela iruditzen zitzaidan. Joan den urteko irailan hasi nintzen eurekin hizketan eta azkenean...

Nola erakartzen dituzu Tolosara?

Lehenik eta behin zenbat kobratzen duten jakin behar da. Ondoren, jaialdiaz hitz egiten diozu. Nahiz eta berria izan, aurtengoa VI. edizioa da, hemendik nazioarteko goi mailako izarrak pasa dira. Iaz, urrutira joan gabe, Otis Grand etorri zen edo duela bi urte Little Charlie and Nightcats. Horrek jaialdiari izena ematen dio. Nire ustez, Hondarribikoaren atzetik, Euskal Herriko bigarren jaialdirik onena da Tolosakoa.

Hona etortzen diren artistek, kontzertua eskaini ondoren zer egiten dute?

Ez dute denbora asko pasatzen hemen. Hala eta guztiz ere, kontzertua amaitu ondoren, eurekin afaltzera Lizardi elkartera joateko ohi-

tura dugu. Askotan managerrek zukuak edo sandwich-ak eskatzen dituzte, baina Elkartera eramaten saiatzen gara. Beraientzat gainera, oso kuriosoa da horko funtzionamendua. Elkarte baten martxarekin oso harrituta gelditzen dira. Otis Grand adibidez, sukaldari, koadroei eta ikurrinari argazkiak ateratzen ibili zen, erabat txundituta. Andaluziarrekin edo katalanekin ere berdin gertatuena da. Iaz, Mingo & The Blues Intruders taldeko kideak eraman genituen afaltzera. Entsalada bat jarri genien hasteko, xumea. Eurak berriz txoratzen. Letxua eta tomatea besterik ez zirela esan nien eta beraiek baietz, tomatea eta letxua hori zela, ez eurek jaten zutena. Hortik bi astera Hondarribian jo zuten eta Elkartera etorri behar zutela esanaz deitu zidaten. Nik afaria prestatzeko eta beraiek kontzertuaren ondoren hona etorriko zirela. Eta horrela egin zuten.

Ezinezko ametsik ba al duzu?

Bai, Big Bad Voodoo Daddy. Kaliforniako taldea da eta bederatzilagunek osatzen dute. Bederatzi lagun ekartzea, non eta Kaliforniatik, oso garestia da. Baina horiek Tolosan izatea izugarria izango zen. 50-60. hamarkadako musika egiten dute; ez da jazz eta bluesa, swing edo retro swing-etik gehiago du, baina egundikoak dira. Momentuz hori da ezinezko ametsa.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Peñiscolan 7 pertsonentzako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean dago eta balkoia, haize egokitua, igogailua, parkinga eta bi igerileku ditu. 617 42 89 52.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako jatetxe batek, uztaila eta abuztuan lan egiteko zerbitzaria behar du. Interesatuak deitu 665 70 87 70 telefono zenbakira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bartoloetako danborradan izena emateko aukera zabalik dago

Ibarra » Abuztuaren 23an, astelehenean, izango da danborrada eta zerrendak herriko tabernetan eta gaztetxean aurkitzen dira.

OIHANA IGUARAN

Bartola festa batzordea ari da jaie-tarako prestatzen, eta ekitaldien artean, iaz ere egin zen danborrada antolatzen ari dira. Zabalik dago izen ematea, eta lehen egunetan 60 lagunek eman dute izena jada.

Iaz berreskuratua

Duela bi urte danborrada jaie-tatik desagertu egin zen, eta iazko Bartoloetan berreskuratu zen. Danborrada batzordearen eskutik.

«Berreskuratzeaz gain indartzea da gure helburua, urteetan zehar iraun dezan»

«Berezia izango da aurtengoa, Ibarra danborradaren 30. urteurrena beteko baita»

Arrakasta handia izan zuen iazko danborradak, herritarren alde-tik «erantzun bikaina» jaso baitzuen: «Ehun lagunetik gora bildu ziren lehenik afaltzera, eta jarraian Ibarra kaleetan zehar danborrak astintzera. Aurten ere ilusio handiz ari gara antolakuntza lane-tan», azaldu dute Danborrada ba-



Iazko Bartoloetako danborrada entsegua Azkue auzoan. BARTOLA JAI BATZORDEA

tzordeko kideek, iaz izandako arrakasta errepikatuzko asmoz.

Berezitasuna

Ilusio berezia ari dira aurten lane-an antolatzaileak. Izan ere, aurtengo danborradak berezitasun bat izango du: «Ibarra danborradaren 30. urteurrena izango dela». Honela, 30. danborrada honen

helburua «berreskuratzeaz gain, urte luzeetan iraun dezan indartzea da», batzordekoek argitu dutenez. Gainera, aurtengoan sorpresak ere izango direla aipatu dute.

Izen ematea zabalik

Batzordeak jada jarri ditu tabernetan izena eman ahal izateko ze-

rendak, eta «oso erantzun ona» izan dute lehen egunetan, 60 lagunek eman baitute izena.

Ondorengo tabernetan eman daiteke izena: Zubiaurre, Sendi Ekintza, Danon Txokoa eta gaztetxean. Danborradan parte hartu nahi duten herritarrek beraz, aipatutako guneetan izango dute izena emateko aukera. «Animatu!».

Laburrak

Koadriren Egurenaren inguruko bilera, 28an

IBARRA » Ibarra jaiei begira, *Etxea nitxek, Barra bila, Itto ta kitto, Auskalo, Alperrek, Ezer gabe eta Aupa hi* koadriek batzarra deitu dute ekainaren 28rako, hau da, astelehene-rako. 19:00etan egingo da bilera Benito Izagirre kultur etxean eta herriko jaietan parte hartzen duten koadriela guztiei bertara agertzeko deialdia luzatu dute.

Berriro zabalduko dute Galarreta pilotalekua

PILOTA » Hernaniko Galarreta pilotalekuak atek zabalduko ditu berriro ere hilaren 26an, larunbatean. Berritze lanengatik itxirik egon da apirilaz geroztik. Oriamendi enpresa kudeatzailetik azaldu dutenez, «erremontearentzat eta Oriamendirentzat egun handia izango da. Proiektuaren benetako aurkezpena esanahi baitu Galarretaren irekierak». Oriamenditik gehitu dutenez, erremonte jaialdirako «zuzusteko ugari» prestatu dituzte. Azkenik, pilotazaleak gonbidatu nahi izan dituzte Galarretara.

Sokatira Txapelketan ordu aldaketa egon da

ARESO » Herriko sokatira taldeak 600 kiloko lehen jardunaldian hartuko du parte hilaren 27an, igandean, Loiu (Bizkaia). Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketaren baitako jardunaldian, taldeek 600 kiloko pisua eman beharko dute gehienez ere. Norgehiagokak ohiko ordua baino beranduago hasiko dira, hau da, 11:30ean. 600 kilotan txapeladuna nor den jakiteko hiru jardunaldi jokatuko dira.



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Denak tabernan lau pertsonentzako afaria



② Abonoak
Tolosako uztaileko zine-kluberako bi abono



③ Diskak

Gaztelupeko Hotsa-en eskutik, Hotsak Dantzan 2 eta Gasteiz Big Band-en Bing Bang! disken bina ale



④ Liburuak

Amesgaiztoa Egunkaria auziko epailetaren kronika liburuaren bi ale



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza

Lainopean egin zuten Bedaioko Mendi eta Bizikleta Martxa

Bedaio » 53 mendizalek eta 16 txirrindularik hartu zuten parte, herriko inguruak zeharkatzen dituen mendi martxan.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Igandean goizeko 07:30etan mugimendua nabaria zen Bedaion. Eguna lainotsua eta euritsua esnatu bazen ere, batzuk animatu ziren, mendiko oinetakoak eta makila hartu eta mendi martxa egitera. Beste batzuk berriz, bizikletan egin zuten ibilaldia. Duatloia, bertan behera utzi zuten, aurreko egunetako euriteekin Artubiko bidea egoera txarrean zegoelako.

Ibilbidea oinezkoek ireki zuten; 53 mendizale guztira. Ordubetegeroago, txirrindulariek ekin zioten pedalkadaz pedalkada mendi bide lokaztuei aurre egiten. 16 lagunek bizikleta gainean eta 26 kilometroko ibilbidea aurretik. Lehenengo iritsi zen txirrindulariak, 2 ordu eta 10 minututan egin zuen ibilbidea.

Oinezkoak ttipi-ttapa, Bedaio inguruko mendiak zeharkatu zituzten. Eguraldi kaxkarrarekin hasieran, baina eguzkiak goizeko hamarretarako lainoak zulatzea



Gipuzkoako eta Nafarroako mugak zeharkatu zituen ibilaldia. HITZA

lortu zuen eta hotz egiten bazuen ere eguraldi polita izan zuten. 14:30erako itzuli ziren Bedaiora, 53 mendizaleak.

Salda beroa, txorizoa...

Artubi elkarteak ordurako prestatua zuten salda beroa, txorizoa eta haragi egosia. Tripa-zorriak bare-

tu ostean, sariak banatu zituzten. Kirola egiteko materiala eta Bedaioko Iurreteta eta Larrañetaberri baserrietako gaztak eraman zituzten parte-hartzaileek.

Elkartekoek herritarrei esker ona ere eman nahi izan diete, kontrol guneetan, bideak markatzen eta antolakuntzan laguntzeagatik.

XI. Zaldi Lasterketan izena emateko epea zabalik dago

Abaltzisketa » Igandean izango da urteroko hitzordua; zaldiek 2,5 kilometroko malda igo beharko dute.

ERREDAKZIOA

Abaltzisketako jaietan azken urteetan egiten den zaldi lasterketa, XI. aldiz egingo da igandean, hilaren 27an.

Zaldi eta zaldunek, Amezketan emango diote hasiera lasterketari. Aurrez aurre, Abaltzisketa lotzen duen bide aldatua izango dute. 2,5 kilometroko maldan neurtuko dituzte indarrak. Arratsaldeko seitan hasiko da lasterketa eta 4-5 minutu iraungo ditu.

Lasterketan izena emateko epea ekainaren 25ean amaitzen da. Interesatuak 665709707 edo 605756743 telefono zenbakietara deitu behar dute. 50 euro ordaindu behar dira fidantza gisa. Egunean bertan itzuliko zaie dirua zaldunei.



Laburrak

I. Frontenis Txapelketa Herrikoia izen-ematea

ALBIZTUR » Herritarrek etxean dituzten erraketak astindu asmoan Festa batzordeak Frontenis Txapelketa antolatuta du. Ekainaren 30a arte, herriko tabernetan daude izena emateko orriak. Neskek eta mutilek, banaka zein binaka jokatzen auzera izango dute. Bikoteek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta banakakoak berriz, 10 euro. Partidak uztaile eta abuztuan jokatuko dira, ostiral eta larunbat arratsaldeetan. Epaila lanak, lehia-kideen artean egingo dira. Sariak dagokienez, finalista guztiak abuztuaren 13an ospatuko den Zikiro afarirako txartelak jasoko dituzte. Irabazleentzat berriz, txapelak izango dira eta Txerrizale Elkarrekin eskainitako produktuekin osatutako saskia.

Udaletxean garbitzaile lanpostua udarako

AMEZKETA » Garbitzaileen oporraldia dela eta ordezkapena egiteko langile bat behar da Amezketako udaletxean. Uztaile eta abuztuan, astelehenetik ostiralera, 3 orduko lan eguna izango du. Baldintzen artean, 2010eko ekainaren 1a baino lehen Amezketan erroldatua egotea da, baita euskara menperatzea ere. Izena eman nahi duenak, etzi, hilak 25, baino lehen udaletxera joan beharko du goizez.

Ohizko Osoko Bilkura datorren astean

TOLOSA » Udalak, ekainaren 28an, 19:30etan egingo den, Ohizko Bilkura parte hartzeko deialdia egiten die herritarrei.

Karmengo festei begira

ERREDAKZIOA

Alegiako Jai Batzordeak festetako kamisetak atera ditu jada. Orain arte, txupinazoko egunean balkoitik botatzen ziren jendeak hartzeko, baina iaz, kexak egon ziren banatzeko modu honekin. Herritarren artean, proposamenak bildu eta salgai jartzera erabaki dute aurtengoan.

Karmengo festetan, Alegiako festen logo koloretsua duen kolore beltzeko kamiseta soinean eraman nahi duenak, Kultur Etxera hurbildu behar du.

Bertan, tamainu ezberdinetako kamisetak probatzeko eta ikusteko aukera dago. Etzi, hilak 25, arte



egongo da kamisetak eskatzeko aukera. Gustatuz gero, lista batean izena eman beharko da. Kamisetak 5 euroko balioa dute.

Bazkari eta afarirako tiketak salgai

Herri afaria aurten larunbatean egingo da, uztailearen 17an. Urte luzez ostiraletan egin bada ere, aurten eguna aldatu dute, baitamena ere. Bi urtez txekor jatea egin dute, aurten aldiz, 22 euroren truke, sargardotegiko menua eskainiko dute. Tiketak uztailearen 7a bitartean egongo dira salgai ondorengo tabernetan: Jubilatuta etxean, Etxeberriari, Hilario-Berri, Kafea, Eizmendi eta Kurpilen.

Umeen bazkaria ostegunean egingo da, uztailearen 15ean. Tiketak hilaren 17a bitartean daude salgai.

Iriarte jatekoa

Gaurtik aurrera, udara garaian, terrazara irekita

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

GURUTZE
OSASUN ETA PSIKOTEKNIKO ZENTRUA

GIDATZEKO BAIMENA ARMA-LIZENTZIA...

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera; 9:00-13:00 / 17:00-20:00
Abuztua: Goizez bakarrik, 10:00 - 13:00

Pablo Gorosabel, 27 behea • Tel./Faxa: 943 651 425
TOLOSA (Gipuzkoa)

Eskuratu liburua ekainaren 30a bitartean 12 euroren truke.

BERRIaren harpidedunentzat eskaintza berezia: 6€

Amesgaiztoa
Egunkaria auziko epaiketaren kronika

Pablo Hurredo | **berria**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ
berria

Aurreko urtean, 30. urteurrenean *Independentzia Eguna* ospatu zutenean gazteek atera zuten argazkia. HITZA

Independentzia Egunagatik jarritako isuna ordaintzen laguntzeko ekimena, gaur

Anoeta » Gazte mugimenduaren 30. urteurrenean kalejira egiteko baimena eskatu zuenari jarri diote isuna.

ERREDAKZIOA

Anoetako gazteek, isun bat jaso dute. Aurreko urteko urriaren 24ean, gazte mugimenduaren sorreraren 30. urteurrena ospatzeko *Independentzia Eguna* antolatuta zuten. Bertan, kalejira egiteko baimena eskatu zuen anoetar gazte batek. Orain, baimena eskatu zuenari 1.000 euroko isuna jarri diote.

Hori dela eta, hainbat herritarrek «babesa» azaldu nahi diote anoetar honi. Bihar, San Joan bez-

pera izanik eta plazan herri afaria, sua eta festa izango direla jakinda, dirua biltzeko helburuarekin zozketa bat egingo dute eta horretarako txartelak salgai egongo dira. Honela, ordaindu beharreko isunari aurre egiteko dirua biltzen saiatuko dira.

Artelana eta bi ardo botila

Saskitxo bat osatu dute zozketa zeko. Anoetako artisau batek burururiko artelana eta bi ardo botila izango dira. Bertatik ateratzen duten dirua isuna ordaintzeko erabiliko dute. Txartelak, herri afarian eta San Joan bezperako jaiak dirauen bitartean salduko dituzte. Zozketa berriz, gauean bertan egingo dute ekitaldi guztiak amaitzen direnean.

Anoetako zenbait herritarrek, «ekimen hau martxan jarri dugunok argi utzi nahi dugu ez dugula onartuko isunek eta zigor ekonomikoek kaleko aldarrikapenak isilaraztea». Eta are gehiago «kaleko aldarrikapenak biderkatzeaz gain herritarren babesa handiagotzea besterik ez dute lortuko» azpimarratu nahi izan dute.

Bukatzeko «gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu batetik, guri laguntzeko eskultura eta ardo botilak eman dizkiguten lagunei. Baita beren babesa eta laguntza azaldu diguten lagunei ere, asko izan baitira injustizia honen aurrean beren haserre eta aldi berean babesa azaldu diguten herritarrek» gogoratu dute gazteek.

Gutunak

Herriko Korputz jaien balorazioa

Joan zaizkigu Korputzak aurten goan ere, eta, atzera begiratuta, herriko Jai Batzordeak festen oso balorazio positiboa egin du. Jende asko ibili da herrian egun horietan, eguraldia ere lagun. Halaber, herritarren parte-hartzea txalotzeko izan da, bai antolakuntzan eta baita ekimen guztiak aurrera eramateko lanetan ere: hasi lehenengo eguneko Koadrilen Egunean, eta azken eguneko herri kirolekako saioa bitarte guztian.

Ekintza guztiak primeran atera badira ere, badira batzuk bereziki azpimarratzekoak. Esate baterako, Oskorriren kontzertua bikaina izan zen: jende lepo bete zen frontoia, eta herritarrek ederki kantatu zuten, taldearekin batera, pantaila bati begira. Bestalde, osteguneko Loatzo Musika Eskolako bandaren lehen kontzertuaz gozatzeko ohorea izen genuen. Loatzo Anoetan sortu zela gogorarazi ziguten musika-eskolako aurkezleek, eta hunkitu ere egin gintuzten iaz zendu zen Javier Sarasa aipatzean. Harro omen legoke hura, bandak zein ederki jotzen duen ikusirik. Horixe baietz!

Ostiralean kiroldegian egin zen dantza emanaldia ere aparta izan zen, Alurr Dantza Taldearen eta Loatzo Musika Eskolaren lagun-

tzaz; nabarmen gelditu zen Anoetako Dantza Taldearen indarra eta trebezia goraipatzekoak direla. Igandeko herri kirolen festa ere, Anoeta eta Alkiza norgehiagokan jarri zituena, ez zen nolana hiko izan. Saio ederra eskaini ziguten benetan, aurrena mutilek sorotan eta gero, plazan, neskek, sokatiran. Amaitzeko, aurten, lehendabizikoa izan da, bai antolakuntzan eta baita ekimen guztiak aurrera eramateko lanetan ere: hasi lehenengo eguneko Koadrilen Egunean, eta azken eguneko herri kirolekako saioa bitarte guztian.

Hala eta guztiz, bada hobetu beharreko gauzarik ere, beti gertatu ohi den moduan. Saiatuko gara datorren urtean horrelakorik gerta ez dadin. Horren harira, aipadezagun Jai Batzordeko bileretara gehienbat jende gaztea etortzen dela, eta komenigarria litzatekeela adin guztietako jendea etortzea, bai heldu eta bai guraso, egitaraua adin guztien gustukoa izan dadin garrantzi bizikoa baita horien ekarpenak eta ideiak ezagutzea; horrela lortuko dugu festak aberatsagoak eta osoagoak izatea. Hor-taz, deialdi berezia egin nahi diogu jende helduari, datorren urteko festak antolatzeko egingo diren prestakuntza bileretan parte har dezaten.

Anoetako Jai Batzordea. Anoeta.

Laburrak

Gaur San Joan bezperan abesteko entsegua

ANOETA » Ohi den bezala, herritar talde batek suaren festa ospatzeko San Joan bezperan abestu egingo du. San Joan bezperako kantuen entsegua izango da gaur 19:30ean eliza ondoan. Urteroko kantariei bertan parte hartzeko deia egingen zaie.

Ostiralean odola emateko aukera izango da

VILLABONA » Etzi, hilak 25, odola emateko aukera izango dute herritarrek. Ohi bezala, Amasa-Villabonako anbulatorioan izango da. Nahi duten herritar guztiak atek zabalik izango dituzte 18:30etik 20:30ak bitarte. Oso garrantzitsua da bertara joatea.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Eskualde guztira iritsiko dira txinpartak

» EGITARUA HERRIZ HERRI

Abaltzisketa

Ekainak 23, gaur

■ **21:30.** San Joan Sua. Jarraian, San Joan Dantza eta Soka Dantza herriko gaztetxoek dantzaturik.
■ **Ondoren.** Dantzaldia Kupela taldearekin.

Ekainak 24, bihar

■ **11:00.** Meza nagusia.
■ **Jarraian.** Herriko gazteen trikiti-xa emanaldia. Bitartean, jubilatuentzat hamaiketako.
■ **15:00.** Toka txapelketa plazan.
■ **19:30.** Triki bertso poteoa.
■ **22:30.** Erromeria TZ taldearekin.

Ekainak 25, etzi

■ **20:30.** Barrikotea herriko plazan (afaria norberak eramanda).
■ **23:30.** Kontzertuak.

Ekainak 26, larunbata

■ **10:30.** VIII. Plater tiraketa lehia-keta Larraitzan, herritarrentzat.
■ **11:30.** Ume jolasak herriko haurrentzat. Ondoren hamaiketako.
■ **15:30.** VIII. Mus txapelketa Larrunarri elkarlean.
■ **21:00.** Sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norbere kontura): Larraste, Isastegi, Rufino, Etxeberria, Zalvide, Begiristain, Sarasola, Aburuza eta Zabala.
■ **Ondoren.** Bertso-saioa Iban Urdangarin eta Joxe Munduaterekin eta dantzaldia Itzel taldearekin.

Ekainak 27, igandea

■ **11:30.** Motozerra erakustaldia herriko plazan.
■ **18:00.** Zaldi lasterketa Amezketatik Abaltzisketara.
■ **Ondoren.** Harri zulatzaileak ariko dira: Amezketala eta Altzoko taldeak elkarren aurka lehiatuko dira. Jarraian, Elustondo anai-arreben trikiti doinuak.
■ **22:30.** Dantzaldia Elustondo anai-arrebekin.
■ **Atsedendian.** Herriko eskolaren aldeko txekorraren zozketa.

Aduna

Ekainak 23, gaur

■ **20:00.** Haurren afaria.
■ **21:00.** Urdiaingo kantaita (urteko uzta ziurtatu ondoren).

Albiztur

Ekainak 23, gaur

■ **22:00.** San Joan sua egingo dute Gomaztegiko bihurgunean.

Alegia

Ekainak 23, gaur

■ **20:45.** Pedro Joxe Iguain alegiarak konposatutako Salve Regina abestuko du Txintxarri abesbatzak Joan santuaren elizan.
■ **21:00.** Sua piztu eta berehala Bordon dantzaren doinua kantatuko du herriko Txintxarri abesbatzak udalaxe aurreko enparantzian. Txintxarri abesbatzak, herri-



San Joan Egunaren bezperan, suaren inguruan ekitaldi ugari egingo dituzte Leitzaldea eta Tolosaldean. I. GARCIA

ko dantzari taldeak eta txistulari taldeak hartuko du parte.
■ **21:00.** Udalak herriarteko pilota txapelketan parte hartu duten pilotariak omenduko ditu.

Alkiza

Ekainak 23, gaur

■ **20:00.** Guraso elkarteak antolatuta, afaria, elizaren ondoan.
■ **Iluntzean.** Sua piztuko dute eta haurrek dantzatu eta abestu.

Altzo

Ekainak 23, gaur

■ **21:15.** Sua piztu eta bedeinkatuko dute. Honen inguruan dantza egingo dute Aiztea taldekoek. Jarraian zahagi ardoa.

Amasa

Ekainak 23, gaur

■ **20:30.** Herri afaria plazan. Norberak eman beharko du jatekoa.
■ **22:00.** Sua piztuko dute eta ondoren San Joan dantza, zortzikoa, fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte.

Anoeta

Ekainak 23, gaur

■ **18:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira, herriko txistulariekin.
■ **20:30.** Herri afaria plazan.
■ **22:15.** Txalapartariak San Joan bezperako suaren jaia iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan Markos Landa aita- semeak, aho-ko soinuarekin direla, San Joan zortzikoa, kantuak eta erromeria izango dira.

Ekainak 24, bihar

■ **12:00.** Jubilatuei eskainitako Meza izango da. Aurretik herriko dantzariak, agurra dantzatuko dute jubilatuz guztien omenez.
■ **14:00.** Jubilatuentzako bazkaria Zuloaga Txiki jatetxean, Udalaren eskutik.

Areso

Ekainak 23, gaur

■ **16:30.** Guraso elkarteak eta festa batzordeak antolatuta, merendola egingo dute, eta haurrentzako jokoak.
■ **21:00.** Afaria herriko plazan.

Norberak bere janaria eman beharko du. Edaria, guraso elkartearen eta festa batzordearen kontu.
■ **Jarraian.** 22:00ak aldera suak piztuko dituzte plazan. Bata txikia, haurrentzako, eta bestea handiagoa.

Asteasu

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Sua piztuko dute plazan. Jarraian txokolatada izango da eta musika ere bai, gaua alaitzeko.

Baliarrain

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Afaria egingo dute San Joan Itturrian. Edaria Udalak jarriko du, eta janaria norberak eramane beharko du.
■ **22:00.** San Joan sua.

Berrobi

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Sua egingo dute Urrutia baserriaren ondoan.

Berastegi

Ekainak 23, gaur

■ **10:00.** Eskolako festaren hasiera.
■ **Ondoren.** Guraso elkarteak kamisetak banatu eta hamaiketako emango du.
■ **16:00.** San Joanetako pilota torneoa.
■ **17:00.** Haurren dantza saioa.
■ **Jarraian.** Haurren dantza-soka.
■ **19:00.** Judoko ikasleen erakustaldia gimnasioan.
■ **21:00.** Pilotalekuan afaria izango da (norberak bere janaria eramane beharko du eta guraso elkarteak edariak, pastak eta kafea jarriko ditu).
■ **Tartean.** Txorimaloen sari bana-keta.
■ **Ondoren.** Sua piztuko dute eta San Joan dantzak eskiniko dituzte. Bestalde, trikixako ikasleek kantu batzuk joko dituzte.

Belauntza

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Festei hasiera emango die eta San Joan suarekin, kanpai eta suziriekin. Trikixako doinuak ere entzungo dira.

Ekainak 24, bihar

■ **Goizean.** Txistularien diana.
■ **11:00.** Meza nagusia. Ondoren hamaiketako herritarrentzat. Trikitilariak alaituko dute eguerdia. Zeberio eta Mendizabal bertsolariak ere bertan izango dira.
■ **17:00.** Haur festa.
■ **18:30.** Toka txapelketa.
■ **19:00.** Herri kirol erakustaldia. Trontza, ingudea, zakua, lokotxak... Ibarako sokatira taldearen eskutik, ondoren, herritarren arteko txapelketa. Izen-ematea orduan egingo da.

Ekainak 25, etzi

■ **17:30.** *Erreka Mari* txotxongilo emanaldia.
■ **18:30.** Esku pilota, haur eta gaztekoen txapelketa.
■ **20:00.** Kostilla jatea, txalaparta eta trikitalariekin. Amaizteko, mus txapelketa.

Bidegoian

Ekainak 23, gaur

■ **20:30.** Jolas parke berriaren ondoko zelaian egingo dute sua. Ondoren, afaria izango da guraso elkartearen eskutik, beraiek edaria jarriko dute.

Hernalde

Ekainak 23, gaur

■ **20:00.** Zahagi ardoa. Jatekoa norberak eramane beharko du.
■ **22:30.** San Joan sua herriko dantzarien emanaldiarekin.

Ibarra

Ekainak 23, gaur

■ **20:00.** Alurr dantza taldean antolatuta, San Joan suaren ohitura berreskuratuko dute. Hasteko afari herrikoia egingo dute plazan. Sardinak sagardoarekin eta txori-zoa parrillan eskainiko dituzte.
■ **21:00.** San Joan Sua pitzen deanean, Alurreko dantzari gazte osaturiko bi taldek dantza egingo dute: San Joan eta beste hainbat dantza.

Ikaztegieta

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Plazan bildu eta sua egingo dute. Garai berean, zahagi ar-

doa izango da. Barrikotea jarriko du Udalak, dohainik. Aulkiak eta mahaia jarriko dituzte, bertan jendeak zerbait jan ahal izateko.
■ **22:30.** Suaren piztea. Ondoren, herritarrek sorgin dantza dantzatuko dute suaren inguruan.

Irura

Ekainak 23, gaur

■ **22:00.** San Joan sua egingo dute San Migel plazan, kanpai doinuak entzutearekin batera. Dantzariak ere izango dira, eta festari amaiera goxokiak banatuz emango diote. Bi su egingo dituzte, bata handia eta bestea txikia. Ardo goxoa ere ez da faltako.

Larraun

Ekainak 23, gaur

■ **21:00.** Afaria, herriko plazan.
■ **22:00.** Kanpai hotsak entzutearekin batera, garai horretan piztuko dute sua.

Leitza

Ekainak 23, gaur

■ **18:00.** Plazan haurrek inguru-txoa dantzatuko dute, eta ondoren opilak banatuko dira.
■ **21:00.** Afari herrikoia, lagunarte bakoitzak bere janaria eramane, eta denek elkarrekin afari ederra egingo dute.
■ **00:00.** Suak piztuko dituzte.

Orexa

Ekainak 23, gaur

■ **19:00.** Herritik barrena kalejira. Honi plaza gaineko auzo berrian emango diote amaiera. Bertan, San Joan dantza dantzatuko dute, eta afari merienda egin.
■ **Ilundutakoan.** Sua piztuko dute, eta bertan erreko dituzte. Joan den larunbatean herritik zehar bildutako trasteak.

Txarama

Ekainak 23, gaur

■ **20:00.** Herri afaria plazan.
■ **22:00.** San Joan sua piztuko dute.

Villabona

Ekainak 23, gaur

■ **19:30.** Oinargi dantza taldearen emanaldia Gurea zineman.
■ **22:00.** Sua egingo dute plazan. Eresardi abesbatza bertan izango da kantuan, eta Oinkari dantza taldean, dantzan.

Zizurkil

Ekainak 23, gaur

■ **22:00.** Zizurkil goian, sua egingo dute plazan eta txokolatada izango da.
■ **20:00.** Zizurkil beran, auzoz auzo suak piztuko dituzte eta hauetatik ibilaldia egingo dute.
■ **22:30.** Pesus plazan dantza emanaldia izango da, eta zizka mizkak.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

San Joan jaiak

■ **Abaltzisketa.** 21:30ean San Joan sua; jarraian, San Joan dantza eta Soka Dantza herriko gaztetxoek dantzaturik eta ondoren dantzaldia Kupela taldearekin.

■ **Belauntza.** Festei hasiera emango diete 21:00etan San Joan suarekin, kanpai eta suzirikin. Trikitixa doinuak ere entzungo dira.

■ **Tolosa.** San Joan jaien hasiera: 10:30ean Iturriza jubilatutako elkartean Mus Txapelketa; 17:00etan txistularien kalejira; 18:30ean suziri udaletxeko balkoitik eta kanpai hotsa jaien hasiera iragartzeko; 18:30ean erraldoi eta buruhandiak Tolosako dultzaineroekin Plaza Zaharretik; 19:30ean Zerkausian bertso jaialdia Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Mikel Artola, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabalekin (gai-jartzailea Iker Iriarte); 19:30ean udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoi-

ztetan parte hartzeko; 20:00etan Berdura plazan Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua; 22:00etan San Joan sua Andre Maria plazan udalbatza bertan dela; ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute; San Joan zortzikoa jo ondoren Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da; jarraian Tolosako Orfeoik kantatuko du; 23:30ean plaza Berrian Switch eta Seiren musika taldeen emanaldia.

Deialdiak

■ **Leitza.** I. Korto Lehiaketa. Gaia libre, gehienez 15 minutuko filma, taldeka nahiz banaka. Lanak Ate-kabeltz gaztetxeko atariko buzoian utzi beharko dira.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ibilaldia. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kliik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Erlo jazz. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kliik. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Erlo jazz. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe terdi. **18:30.** On ein! **19:00.** Lazkaoko festak. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ikusmira.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanaren eta iritzien erantzunkizunik.



Egun pasa ederra Bizkaia aldean

IKAZTEGIETA ■ Herriko jubilatutako koadrilak, egunpasa ederra egin zuen pasa den astean Bizkaia aldean. Eguraldiak lagundu ez bazien ere, Urdaibaiko kostaldean, itsaso zakarrak gozatu ahal izan zuten Gaztelugatxeko base-lizatik. Bermeoko portu ezaguna eta herria bisitatu ostean, Santimamiñe ondoan dagoen jatetxean bazkaldu zuten. Giro onean bazkaldu eta gero, arratsaldea Gernikan pasa zuten. Autobusez iluntzean itzuli ziren etxera. Datorren urtean berriro eskainiko die Udalak, elkarrekin egunpasa egiteko aukera. A.BELAUNZARAN

MUNDUAN
DAGO
ZURE
ETORKIZUNA

Hitanoari buruzko IKASTAROA

Irakaslea: Ritxi Lizartza,
*Mintza hadi, lagun! liburua*ren egilea

Hitanoaren erabilerari buruzko azalpen orokorrak emango ditu ordu eta erdiko saioan, eta entzuleek edozer eratako zalantzak edo galderak planteatzeko aukera izango dute. Alokutiboaren ezaugarriei buruzko jarduerak, azken batean, hitanoa euskalduntze prozesuan sartzearen aldeko gogoeta da.

Hitano Ikastaroak
TOLOSAN
Uztailaren 5etik 16ra
30 ordu
Ordutegia
8:00etatik 11:00etara

Bete beharreko baldintzak:
EGA MAILA IZATEA
edo/eta
EUSKALDUN ZAHARRA IZATEA

www.elduaien.com
TOLOSA (LAU ZENTRO): Tel: 943 67 47 33
DONOSTIA (ONDARRETA - INTXAURRONDO)
LASARTE - URNIETA - VILLABONA - ALEGIA

